gusiko administrazioarekiko auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan; kasu bietan, errekurtsoak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da.

*Hirugarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean izango du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko apirilaren 25a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses. En ambos casos, los plazos de interposición se contarán a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Tercera.–* La presente Orden entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de abril de 2000.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## Zk-3046

EBAZPENA, 2000ko apirilaren 20koa, Lanbide Heziketako zuzendariarena, lanbide-moduluen ebaluaketa eta kalifikazioa arautzen dituena, ikastetxean matrikulatuta egon izanik, bertaratze erregimeneko deialdiak agortu dituzten eta modulu ez gaindituak izanik, eskubidea duten deialdiak agortu ez dituzten ikasleentzat.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak, honako hau xedatzen du IV. kapituluko 30.2 artikuluan: «Lanbide heziketak hezkuntza sistemaren arloan duen xedea da ikasleak prestatzea lanbide arloan jardun dezaten, balio anitzeko prestakuntza eskuratuz bizitzan zehar lanaren arloan izan ditzaketen aldaketei egokitu ahal izateko. Horren barruan izango dira oinarrizko lanbide heziketa eta berariazko lanbide heziketako maila ertaina eta goi-maila». Era berean honako hau xedatzen du 30.5 artikuluan: «Berariazko lanbide heziketak heziketa ziklo batzuk jasoko ditu, moduluka antolatuta, iraupen aldakorrekoak, ezaguera teoriko-praktikoko eremuka eratuta, arlo profesionalen arabera. Heziketa zikloak bat etorriko dira artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatzen diren maila ertain eta goi-mailarekin».

Azaroaren 22ko 447/1994 Dekretuak, Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorra eta horien tituluei buruzko artezpideak finkatzen dituenak, xedatzen duenez II. kapituluko 3. artikuluan, berariazko lanbide heziketako irakaskuntzak maila ertain eta goi-mailako heziketa zikloetan antolatuko dira. 4. artikuluan heziketa zikloetarako sarbidea finkatzen du.

Apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuak Batxilergoa, Lanbide Heziketako irakaskuntzak eta horien tituluei

## N°-3046

RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2000, del Director de Formación Profesional, por la que se regula la evaluación y calificación de módulos profesionales para aquellos alumnos/as que habiendo estado matriculados en el centro hayan agotado las convocatorias presenciales, y teniendo módulos no superados, no hubieran agotado las convocatorias a que tienen derecho.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo en su capítulo IV, artículo 30.2 dice que «La formación profesional, en el ámbito del sistema educativo, tiene como finalidad la preparación de los alumnos para la actividad en un campo profesional, proporcionándoles una formación polivalente que les permita adaptarse a las modificaciones laborales que pueden producirse a lo largo de la vida. Incluirá tanto la formación profesional de base como la formación profesional específica de grado medio y de grado superior.» Así mismo indica en el art. 30.5 que «La formación profesional específica comprenderá un conjunto de ciclos formativos con una organización modular, de duración variable, constituidos por áreas de conocimiento teórico-prácticas en función de los diversos campos profesionales. Los ciclos formativos se corresponderán con el grado medio y grado superior a que se refiere el apartado 2 de este artículo.»

El Decreto 447/1994, de 22 de noviembre, por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas de formación profesional y las directrices sobre sus títulos, en su capítulo II, artículo 3, establece que las enseñanzas de formación profesional específica se ordenarán en ciclos formativos de grado medio y grado superior. En su artículo 4 establece el acceso a los ciclos formativos.

El Decreto 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del bachillerato, las enseñanzas de

buruzko artezpideak arautzen ditu eta III. kapituluko 13.2 artikuluan ezartzea xedatzen du honako hau xedatuz «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finkatzen duenaren arabera, irakaskuntza horien eskaintza egin ahal izango da zuzenekoa ez den erregimenean, hau da, «urrutikoa» deritzonean, eta azterketetarako deiak egin ahal izango dira eskolatu gabeko ikasleek lanbide-tituluak eskuratu ditzaten».

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1997ko ekainaren 15eko Aginduak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak finkatzen duen Berariazko Lanbide Heziketa egiten duten ikasleak ebaluatzeko prozesua arautzen duenak, honako hau dio 20.6 artikuluan: «Bertaratze erregimenean, ikasleek gehienez ere bi aldiz garatu ahal izango dituzte lanbide-modulu bererako programatutako jarduerak eta lanbide-modulu beraren ebaluazio eta kalifikaziora, horretarako izendatutako saioetan, gehienez ere sei bider aurkeztu ahal izango dira.»

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Berariazko Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe publiko eta pribatuek heziketa-moduluen ebaluazioa eta kalifikazioa antolatuko dute, Berariazko Lanbide Heziketako heziketa-zikloei dagozkienak, ikastetxean matrikulatuta egon izanik, bertaratze erregimeneko deialdiak agortu dituzten eta modulu ez gaindituak izanik, eskubidea duten deialdiak agortu ez dituzten ikasleentzat.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honen gai diren ebaluazio eta kalifikaziora jo ahal izango dute ikastetxean matrikulatuta egon izanik, bertaratze erregimeneko deialdiak agortu dituzten eta modulu ez gaindituak izanik, eskubidea duten deialdiak agortu ez dituzten ikasleek.

***Hirugarrena.–*** Iraileko bigarren hamabostaldian kasuan kasuko heziketa-zikloan matrikulatuta egon den ikastetxean egingo da ebazpen honetan aurreikusitako ondorioetarako matrikula.

***Laugarrena.–*** Matrikula egiten den ikastetxeko ikasketa-buruak azterketak egiteko egutegia prestatuko du eta iragarki-taulan jarriko da jendaurrean gutxienez azterketak egin baino 20 egun lehenago. Egutegi horretan honako hauek adierazi beharko dira: lanbide-modulu bakoitzeko azterketak egiteko egunak, orduak, tokiak eta gehienezko denbora. Ahal den neurrian ez dira elkarrengandik hurbil jarriko.

***Bosgarrena.–*** Lanbide-modulu bakoitzeko azterketak kasuan kasuko Saileko Ikasketa Burutzak proposatuta egin eta ebaluatuko dira. Azterketak gainditzeak adieraziko du ikasleek kasuan kasuko lanbide-modulua behar bezala ezagutzen dutela. Emaitzak akta batean ja-

formación profesional y las directrices sobre sus títulos y se dispone su implantación en su capítulo III, artículo 13.2, dice que «De acuerdo con lo que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación determine, podrán efectuarse ofertas de estas enseñanzas en régimen no presencial, con la denominación de «a distancia», y convocarse pruebas para la obtención de los títulos profesionales por parte de alumnos no escolarizados.»

La Orden de evaluación de 15 de junio de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el proceso de evaluación de los alumnos que cursan la formación profesional específica, establecida en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, en su artículo 20.6 dice «En régimen presencial, los alumnos y alumnas podrán desarrollar las actividades programadas para un mismo módulo profesional un máximo de dos veces y podrán presentarse a la evaluación y calificación de un mismo módulo profesional, en sesiones designadas a tal fin, un máximo de seis veces.»

En su virtud

RESUELVO:

***Primero.–*** Los centros públicos y los centros privados en los que se imparta formación profesional especifica organizarán la evaluación y calificación de módulos profesionales, correspondientes a los ciclos formativos de Formación Profesional específica, para aquellos alumnos/as que habiendo estado matriculados en el centro, hayan agotado las convocatorias en régimen presencial y teniendo módulos no superados, no hubieran agotado las convocatorias a que tienen derecho.

***Segundo.–*** Tendrán la consideración de alumnos acogidos a la evaluación y calificación objeto de esta Resolución aquéllos alumnos/as que habiendo estado matriculados en el centro, hayan agotado las convocatorias en régimen presencial, y teniendo módulos no superados, no hubieran agotado las convocatorias a que tienen derecho.

***Tercero.–*** La matrícula a los efectos previstos en esta Resolución se realizará en el centro donde se ha estado matriculado del ciclo formativo en cuestión en la segunda quincena del mes de septiembre.

***Cuarto.–*** El Jefe de Estudios de cada centro donde se realice la matrícula confeccionará el calendario de pruebas el cual se hará público en el tablón de anuncios, con una antelación de, al menos, 20 días al comienzo de las mismas. En este calendario se harán constar los días, horas, lugares y el tiempo máximo para la realización de las pruebas correspondientes a cada módulo profesional. La planificación de las mismas evitará, en lo posible, su concentración.

***Quinto.–*** Las pruebas de cada módulo profesional serán elaboradas y evaluadas a propuesta de la Jefatura de Estudios por el Departamento correspondiente, juzgando los resultados de forma que la superación de las pruebas establecidas suponga por parte de los alumnos/as un

soko dira eta ikasle bakoitzaren espedientean jarriko dira. Agiri horiek ikastetxeko idazkaritzan gordeko dira.

*Seigarrena.–* Matrikula egiteko inprimakiak, ebaluazio akta eta gainerako agiri akademiko-administratiboak ikasle ofizialentzat erabiltzen diren berdinak izango dira eta idazpuruan argi eta garbi azaldu beharko dute ebazpen honen gai diren azterketak direla.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ebazpen hau.

*Bigarrena.–* Ebazpen honetan prozeduraren aldetik arautzen ez den guztirako aplikagarri izango da osagarri moduan azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko apirilaren 20a.

Lanbide Heziketako zuzendaria,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

dominio suficiente del módulo profesional correspondiente. Los resultados se harán constar en un acta y serán trasladados al expediente individual del alumno/a. Dicha documentación será custodiada en la Secretaría del centro.

*Sexto.–* Los impresos de matriculación, acta de evaluación y demás documentos académico-administrativos, serán los mismos que se utilizan para los alumnos/as oficiales, indicando claramente en la cabecera de ellos que se trata de las pruebas objeto de esta Resolución.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Segunda.–* En lo no regulado en la presente Resolución en materia de procedimiento será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2000.

El Director de Formación Profesional,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

## ARAMAIOKO UDALA

## Zk-3047

ERABAKIA, Elkarketa Zibilen Udal Erregistroari buruzkoa.

Aramaioko Udalbatzarrak, 2000ko maiatzaren 31an izandako Osoko Bilkuran Elkarketa Zibilen Udal Erregistroaren inguruan honako hau erabaki zuen:

*Lehena.–* Elkarketa Zibilen Udal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten arauen bosgarren artikulua aldatzea, eta honako erredakzio hau ematea:

> «5. artikulua: Elkarketa Zibilen Udal Erregistroan inskribatutako egitatezko bikote guztiek, Udal honek bere eskumeneko gaietan ezkontzazko elkarketei aitortzen dizkien eskubide eta betebehar administratibo berak izango dituzte.«

*Bigarrena.–* Erabaki hau indarrean egongo da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aramaio, 2000ko ekainaren 19a.

Alkateak,
IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## AYUNTAMIENTO DE ARAMAIO

## N°-3047

ACUERDO relativo al Registro de Uniones Civiles.

El Pleno del Ayuntamiento de Aramaio, en sesión celebrada en fecha 31 de mayo de 2000, adoptó acuerdo relativo al Registro de Uniones Civiles cuya parte dispositiva es del siguiente tenor literal:

*Primero.–* Modificar el Artículo 5 de las normas reguladoras de la organización y funcionamiento del Registro Municipal de Uniones Civiles del Ayuntamiento de Aramaio, dándole la siguiente redacción:

> «Art. 5: Todas las parejas de hecho inscritas en el Registro Municipal de Uniones Civiles tendrán los mismos derechos y obligaciones de carácter administrativo, que dicho Ayuntamiento tenga reconocidos o reconozca para las uniones matrimoniales, en las cuestiones de su competencia.»

*Segundo.–* El presente acuerdo entrará en vigor al día siguiente de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Aramaio, a 19 de junio de 2000.

El Alcalde,
IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.